BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

104

EBAZPENA, 2013ko azaroaren 26koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Nazioartekotzeko zuzendariarena, irabazi-asmorik gabeko erakundeei kanpo-sustapeneko ekintzetarako laguntzak emateko Elkartzen Programa arautzen duen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2005eko martxoaren 15eko Aginduan –eta geroztiko 2012ko ekainaren 13ko Aginduaz egindako aldaketan– aurreikusitako laguntzen 2013ko onuradunen zerrenda argitara emateko dena. Laguntza horietarako 2013ko deialdia Industriako sailburuordearen 2013ko maiatzaren 29ko Ebazpenaz egin zen.

Diru-laguntza publikoak emateko, ezinbestean bete behar da publikotasun-printzipioa. Hori dela eta, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuak 2005eko martxoaren 15ean emandako Aginduan –eta geroztiko 2012ko ekainaren 13ko Aginduaz egindako aldaketan– xedatutako laguntzak onuradunei banan-banan jakinarazi ondoren, onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen da, ebazpen honen bidez. Agindu horren bidez, irabazi-asmorik gabeko erakundeei kanpo-sustapeneko ekintzetarako laguntzak emateko Elkartzen programa arautu zen.

Eskualde Garapeneko Europako Funtsak lagundu du programa hori finantzatzen; horrenbestez, Europar Batasuneko araudian informazioari eta publizitateari buruz xedatzen diren betekizunak bete beharko dira.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Elkartzen programako laguntzen 2013ko onuradunen zerrenda argitaratzea, ebazpen honen eranskinean agertzen den moduan. Programa hori Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2005eko martxoaren 15eko Aginduan –eta geroztiko 2012-06-13ko Aginduaz egindako aldaketan– arautu zen, irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntzak emateko, kanpo-sustapeneko ekintzak egin ditzaten.

Eskualde Garapeneko Europako Funtsak ehuneko berrogeita hamarreko laguntza eman du, programa hori finantzatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 26a.

Nazioartekotzeko zuzendaria,
JOSEBA IMANOL ABURTO ERDOIZA.

ERANSKINA

ELKARTZEN PROGRAMA 2013

	ELKARTEA			ONARTUTAKO DIRU-LAGUNTZA
1	Acicae	G48562698	Bizkaia	11.095,90
2	AEVC	G95147187	Bizkaia	15.102,00
3	AFEF	G48957146	Araba	15.798,48
4	Afemma	G46167458	Valencia	77.319,20
5	AFM	G20065637	Gipuzkoa	229.996,17
6	Herramex	G28524668	Gipuzkoa	85.726,15
7	Agragex	G48297139	Bizkaia	64.364,08
8	Anmopyc	G50098508	Zaragoza	49.962,54
9	Ascene	G48557458	Araba	42.781,13
10	Asociación Armera	G20120879	Gipuzkoa	39.617,83
11	Asvefat	G20774568	Gipuzkoa	15.207,60
12	Avic	G48166979	Bizkaia	18.807,60
13	Basquegame	G95682183	Bizkaia	68.078,01
14	Camara del Libro	G48117352	Bizkaia	10.940,40
15	Cluster Aclima	G48763858	Bizkaia	16.899,10
16	Cluster de Energía	G48888895	Bizkaia	9.697,40
17	Cluster Eraikune	G95611596	Bizkaia	0,00
18	Cluster Hegan	G48968978	Bizkaia	9.402,84
19	Cluster de Movilidad	G01387414	Gipuzkoa	9.111,70
20	Energy Supply Chain	G20983524	Gipuzkoa	22.512,23
21	ESLE	G01390780	Bizkaia	16.925,30
22	Fluidex	G48414411	Bizkaia	64.646,20
23	Foro Marítimo Vasco	G48976823	Bizkaia	34.261,05
24	Fundigex	G48186670	Bizkaia	118.524,72
25	Gaia	G20082509	Gipuzkoa	108.696,00
26	Gastelia	G01512961	Araba	9.755,00
27	Habic	G75061242	Gipuzkoa	93.904,47
28	Hetel	G48409205	Bizkaia	5.856,00
29	Ibaia	G20109245	Gipuzkoa	1.400,00
30	Langune	G75019257	Gipuzkoa	10.366,00
31	Mafex	G95333340	Bizkaia	63.019,46
32	Siderex	G48843395	Bizkaia	90.984,75
33	Uniport Bilbao	G48644785	Bizkaia	67.870,54
		GUZTIRA		**1.498.629,85**